GARA lectores con criterio

2013/3/19
ASTEARTEA
XV. urtea | 5.121. zenbakia
1,50 euro
www.gara.net



**CHIPRE** El Eurogrupo acepta que no se grave a los pequeños ahorradores >27

## López anuncia una enmienda a la totalidad a los presupuestos de Lakua

El PSE anunció ayer la presentación de una enmienda a la totalidad a las cuentas de Lakua, que su secretario general, Patxi López, definió como «los peores presupuestos posibles para Euskadi». El PSE sostiene que se puede contar con 800 millones de euros más de ingresos y que si se hubieran reflejado en el presupuesto no sería necesario «meter el hacha» como hace Iñigo Urkullu. >13

## Urkullu basa su plan de empleo en financiación privada

El Gobierno de Lakua ha presentado un plan de empleo que afirma que puede crear 12.711 empleos y mantener otros 42.185, con un carácter «paliativo» porque considera que en época de recesión no se puede ir más allá. El proyecto se soporta en financiación privada (se quieren captar 733 millones para sumar a los 281 públicos). EH Bildu contraataca instando a mantener las 35 horas. >22-23

**EDITORIALA** >6

La situación exige más que un parche



## LABOA KATEDRA, KULTURA SUSTATZEKO

Argazkia: Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Euskal kultura ikertu eta sustatu egingo du Mikel Laboa Katedrak. Marisol Bastida alarguna –irudian– hunkitu egin zen aurkezpenean. >38

## Casi cien ayuntamientos han rechazado ya la doctrina 197/2006

En vísperas de la decisiva sesión de mañana en Estrasburgo, Herrira ha hecho balance de su campaña para plasmar que la mayoría social vasca rechaza el polémico alargamiento de condenas. Además del Parlamento de Gasteiz o las Juntas de Gipuzkoa, esta doctrina ha cosechado el rechazo de casi un centenar de consistorios de todo tipo. >4-5

**KORRIKA**
MAIDER IANTZI

## Las ganas de allanar el futuro al euskara emocionan en la Ribera

Korrika viajó ayer desde los Pirineos hasta el sur y el contraste del paisaje resultó impresionante: pasó de subir y bajar blancos puertos a atravesar entre maizales y viñedos rectas que parecían no tener fin. El camino para el euskara no es llano en esta zona, pero la participación, el esfuerzo y la motivación emocionaban y animaban para el futuro. Korrika entra hoy en Araba y llega a Gasteiz a la tarde. >10-11

# Los críticos a Barcina admiten que UPN ha quedado «partido»

**La reelegida presidenta se limita a ofrecer a Catalán y García Adanero que entren a la Ejecutiva monocolor con voz pero sin voto. El derrotado afirma que hubo «amenazas» a algunos afiliados**

El día después de retener la Presidencia de UPN y lograr incluso una Ejecutiva monocolor, Yolanda Barcina comprobó que todos sus problemas siguen intactos. Al derivado de las dietas de la CAN, que admite que seguirá coleando, se le suma la oposición de la mitad de su formación y también el rechazo del PSN, que ayer volvió a reclamarle «que se marche». El primer flanco que debe afrontar es la recomposición de UPN, pero la vieja guardia le avisa de que no será fácil. Adanero ve a UPN «partido», Sanz asegura que «hay que cambiar estrategias» y Catalán añade, sin más detalles, que afiliados fueron amenazados. >2-3

## El nuevo Ejecutivo israelí promete continuar con la colonización

El nuevo Ejecutivo de Benjamin Netanyahu ha prometido que continuará con una expansión de las colonias en territorio ocupado palestino similar a la llevada a cabo hasta ahora. El nuevo Gobierno recibió anoche el aval del Parlamento. >17

k: Kultura

# EHUk euskal kultura ikertuko duen Mikel Laboa katedra jarri du abian

Gipuzkoako Aldundiak 555.000 euroko laguntza emango dio Euskal Herriko Unibertsitateari euskal kultura ikertu eta nazioartean sustatu dezan. Ildo nagusia Mikel Laboa izango da gure folklorean izan duen garrantziagatik eta euskal kultura eredu bat delako, baina berarekin elkalanean aritutako sortzaileak ere aztertuko dituzte. Era berean, discriplina desberdinetako egungo eragileen arteko lankidetza ere bultzatuko dute sorkuntza abersatsagoa lortzeko.

Nagore BELASTEGI | **DONOSTIA**




Ezkerretik eskubira, Juan kruz Igerabide, Iñaki Goirizelaia, Marisol Bastida, Martin Garitano eta Amaia Maseda, aurkezpenaren ostean. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Mikel Laboa Katedra martxan jarri du Euskal Herriko Unibertsitateak euskal kultura eta hondarea ikertzeko asmoz. Sortzaile hori hautatu dute aztergaiarekin harreman handia duen gizona izan zelako. Hala, Laboak birizik zegoenean hasi zuen euskal arteak sustatzeko bidea jarraituko du unibertsitateak, batez ere gutxi aztertu diren gaiei garrantzia ematen, alegia, musika, dantza eta bertsolaritza.

Juan Kruz Igerabide dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako ikerketa-bide honen zuzendaria. Honek, atzo goizean Donostiako unibertsitateko kanpusean egindako aurkezpenean azaldu zuen lehenengo urte honetan gehien bat ikerketa Mikel Laboaren figuran beran eta bere inguruan aritu ziren sortzaileetan zentratuko direla. «Ezinezkoa izango da dena ikertzea baina ahal duguna egingo dugu», aipatu du. Ikerlari talde bat osatuko dute eta kultur eragile desberinekin elkarlanean arituko dira arte espresio desberdinen arteko harremanak sustatzeko, adibidez, Kukai dantza taldearekin, Etxepare institutuarekin edota Eresbil musika gordailuarekin. Era berean, master amaierako proiektuak zein tesiak aurrera eramateko bekak eskainiko dituzte, eta baita sorkuntza bultzatu ere.

Azken helburua Euskal Herritik kanpo Mikel Laboaren lana, eta bide batez beste euskal sortzaileena, ezagutzera ematea bada ere, bidean katedrak bestelako xedeak ditu. Esaterako, aurten kantu-sormen lehiaketa bat jarriko dute abian, baita katedraren inguruko webgunea informazio osatuarekin ere. Udazkenera begira, kantautorearen inguruko jardunaldiak eta erakusketa bat egingo dute, baita argitalpen monografiko bat prestatu ere 2014ean kaleratuko dena.

Marisol Bastida, Laboaren alarguna, ere aurpezkenean izan zen. «Unea ez da erraza, baina gasturik gabe ez dago aktibitaterik, eta aktibitate hau funtsezkoa da arteak bizitza ematen digulako eta krisi garaian ere bizitza dagoelako», aipatu zuen hunkituta. Honek azaldu zuen bere senarra zenak hiru arlotan lana egin zuela batez ere: kanta zaharrak berreskuratu, poema garaikideak musikalizatu eta bere kabuz esperimentatzea.

### Laboaren pausoak jarraituz

Aldundiaren izenean Martin Garitano diputatu nagusia izan zen aurkezpenean. Honek adierazi zuen katedran egingo den lana Laboak berak hasitakoaren jarraipena izango dela euskal kulturaren arlo guztien sustatzaile moduan. Garitanoren esanetan, Laboak hizkuntzaren mugak gainditu zituen maitatzen zuen hura bultzatzeko bidean. Katedra hau garrantzitsua dela uste dutelako, Dipuztazioak 555.000 euro bideratuko ditu funtsa honetarako, eta inbertsio moduan ikusten duela azaldu zuen euskal kultura «ekonomia bizkortzeko tresna» ere badelako, eta Laboak, finean, «Euskal Herriaren soinu banda» egin zuelako.

EHUtik Iñaki Goirizelaia errektoreak eta Amaia Maseda errektoreordeak hartu dute parte atzo goizeko ekitaldian. Lehenak, Aldundiari eskerrak eman zizkion bere laguntzagatik oinarrizkoa ikusten baitu. Era berean, abesriak 2000. urtean unibertsitateko urrezko domina jaso zuenean esandakoa gogora ekarri zuen: «iraganeko oroitzapenek bertara eraman zutela esan zuen, eta bere oroitzapenengatik sortu dugu katedra hau».

## Unibertsitatearen omenaldi bat abeslariari

Goirizelaia errektoreak azpimarratu nahi izan zuen laboak Euskal Herriko Unibertsitatearekin zuen harremana. 2008an abeslaria hil eta gero, harreman hori eten beharrean indartu egin da eta anitzak dira bere izenean martxan jarri izan diren ekimenak. Bizkaiko kanpusean egin dituzten obren ostean plaza bati abeslariaren izena jarri diote.

2010ean, ordea, bera omentzeko adierazpen artistikoko lehiaketa bat egin zuen unibertsitateak eta 76 lan jaso zituen. Sariak disziplina anitzetan banatu zituzten: euskaraz zein gaztelerazko idazkera testuentzat, arte plastiko eta ikusentzunezkoentzat, eta bere abestien bertsioak egin zituztenentzat. Horrez gain, aipamen berezia egin zioten irakasleek eta ikasleek batera egindako argazkiz osatutako liburuari. EHU eta Laboaren harreman horren eredu da ere bai katedra berri hau, zeinek abeslariaren espiritua bizirik mantentzen saiatuko den. N.B.